


>>>

elkartu

Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa



BIZITZA INDEPENDENTEA

DESGAITASUNA DUTEN
PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO
NAZIOARTEKO KONBENTZIOA

5. OHAR OROKORRA, MODU
INDEPENDENTEAN BIZI ETA
KOMUNITATEKO PARTE IZATEKO
ESKUBIDEARI BURUZKOA

AURKIBIDEA

4. or

01

ZER DA
KONBENTZIOA?

8. or

02

ZER DIRA OHAR
OROKORRAK?

10. or

03

BIZITZA INDE-
PENDENTEA-
REN ESKUBIDEA
KONBENTZIOAN
ETA 5. OHAR
OROKORREAN

12. or

04

ZER DA
BIZITZA
INDEPENDENTEA

20. or

05

BIZITZA INDE-
PENDENTERAKO
ESKUBIDEA
BERMATZEKO
LAGUNTZAK NO-
LAKOAK IZAN
BEHAR DIREN

22. or

06

ASISTENTZIA
PERTSONALA
BIZITZA INDE-
PENDENTERAKO
LAGUNTZA MO-
DURA BEREZIKI
AINTZATESTEA

24. or

07

ESTATUEK 19.
ARTIKULUA
ERAGINKOR
IZAN DADIN
DITUZTEN
BETEBEHARRAK

28.or

08

ZEHARKAKOTA-
SUNA BESTE
ESKUBIDE
BATZUEKIN

01

ZER DA KONBENTZIOA?



Desgaitasunaduten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko konbentzioa 2006ko abenduaren 13an onartu zuten New Yorkeko Nazio Batuen Egoitzan eta 2008ko maiatzaren 3an jarri zuten indarrean, Estatuak sinatu eta berretsi ostean. Horrenbestez, nahitaez betetzekoa da.

Konbentzioak berekin dakartzan berritasunen artean, ondoko hauek nabarmentzen dira:

01

Desgaitasuna giza eskubideekin lotuta dago, izan ere, desgaitasuna duten pertsonak ez dira karitate edo asistentziatzko politiken «objektu»; aitzitik, giza eskubideen «subjektu» dira.

02

Desgaitasuna medikuntzaren ikuspuntutik ulertzeko modua gainditzeko du –osasun eta asistentzia arloko alderdiak lehenesten ditu horrek–, desgaitasunaren inguruan gizarte-eredu bat ezartzeko, non desgaitasuna urritasunak dituzten pertsonen arteko elkarrekintzaren emaitza baita, gizartean erabat eta eraginkortasunez, besteen baldintza berdinetan, parte har dezatela ekiditen duten jarrera eta ingurunearen ondoriozko hesiak gainditzeko.

03

Desgaitasuna duten pertsonentzat beren autonomia eta independentzia izateak duen garrantzia aitzortzen du, erabakiak hartzeko askatasuna barne.

04

Konbentzioak irizten dio desgaitasuna duten pertsonak aktiboki parte hartzeko aukera izan behar dutela politika eta programei buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan, beraiei zuzenen eragiten dietenak barne direla.

Konbentzioaren helburua da desgaitasuna duten pertsona guztiek beren giza eskubideak eta askatasuna erabat eta berdintasunez izango dutela sustatzea, babestea eta ziurtatzea, baita haien duintasunarekiko errespetua bultzatzea ere. (1. artikulua).

HAUEK DIRA
KONBENTZIOAK
AITORTZEN
DITUEN
ESKUBIDE
NAGUSIAK:

Berdintasuna eta
diskriminaziorik eza.

Bizitzeko eskubidea.

Irisgarritasuna.

Justiziara iristea.

Legeak berdintasunez pertsona
gisa aintzatestea.

Libertad y seguridad de
la persona.

Torturaren eta bestelako tratu
edo zigor krudel, anker edo
umiliagarrien aurkako babesa.

Esplotazio, indarkeria
eta abusuen aurkako
babesa.

Pertsonaren askatasuna
eta segurtasuna.

Joan-etorriak egiteko
eta nazionalitaterako
askatasuna.

Osotasun pertsonalaren
babesa.

Modu independentean bizi eta
komunitatearen kide izatearen
eskubidea.

Mugikortasun pertsonala.

Hezkuntza.

Adierazpen- eta iritzi-
askatasuna, eta informazioa
eskuratzekoa.

Pribatutasunaren errespetua.

Osasuna.

Etxearen eta familiaren
errespetua.

Gaikuntza eta
birgaikuntza.

Bizi-maila egokia eta
gizarte-babesa.

Lana eta enplegua.

Partaidetza bizitza
politikoan eta publikoan.

Partaidetza bizitza kulturalean,
jolas jardueretan, aisian eta
kirolean.




02

ZER DIRA OHAR OROKORRAK?



Batzordeak desgaitasuna duten pertsonen esku-bideei buruz taxututako dokumentuak dira. Aipatu Batzordea Konbentzioaren aplikazioa gainbegiratzeko aditu independenteez osatutako organo bat da, Konbentzioan aitortutako eskubideak argitzeko eta Estatuaren interpretaziorako gida modura baliagarri izan dadin.

Orain arte, Batzordeak Ohar Orokor hauek egin ditu:



- 1. ohar orokorra (2014) - 12. artikulua: Legeak berdintasunez pertsona gisa aintzatestea
- 2. ohar orokorra (2014) - 9. artikulua: Irisgarritasuna
- 3. ohar orokorra (2016), desgaitasuna duten emakume eta neskatoei buruzkoa
- 4. ohar orokorra (2016), heziketa inklusiborako eskubideari buruzkoa
- 5. ohar orokorra (2017), modu independentean bizi eta komunitatearen kide izatearen eskubidea
- 6. ohar orokorra (2018), berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoa
- 7. ohar orokorra (2018), desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzeari buruzkoa, desgaitasuna duten mutiko eta neskatoen barne, horiek ordezkatzan dituzten erakundeen bidez, Konbentzioa aplikatuz eta jarraitu

03


BIZITZA INDE- PENDENTEAREN ESKUBIDEA KONBENTZIOAN ETA 5. OHAR OROKO- RREAN



Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioak, 19. artikuluan, modu independentean bizi eta komunitateko kide izatearen eskubidea aitortzen du:

Konbentzio honetako estatu-kideek aitortzen dute desgaitasuna duten pertsona guztiek baldintza berberetan eskubidea izatea komunitatean bizitzeko, gainerakoek aukera berberetan, eta neurri eragingarri eta egokiak hartuko dituzte, desgaitasuna duten pertsonak eskubide hori oso-osoan izan dezaten eta pertsona horiek komunitatera bil daitezten, eta bertan parte har dezaten, modu berezian ziurtatuz:

- a/** *Desgaitasuna duten pertsonak aukeratu ahal izatea beren bizilekua eta non eta norekin bizi nahi duten, gainerakoek baldintza berberetan, eta betebeharririk ez izatea, nahitaez bizitza-sistema jakin baten arabera bizitzeko;*
- b/** *Desgaitasuna duten pertsonak eskura izatea etxeko laguntzarako zerbitzu, egoitzetako laguntzarako zerbitzu eta komunitateko bestelako babes-zerbitzuen multzoa, halakoek artean izanik laguntza pertsonala, hori beharrezkoa denean pertsona desgaituak bizimodua ateratzeko eta pertsona hori komunitatera biltzeko, eta gizartetik isolatuta edo bananduta bizitzea saihesteko;*
- c/** *Komunitateko instalazioak eta zerbitzuak, herritar guztientzat direnak, desgaitasuna duten pertsonentzat eskuragarri izatea, berdintasun-baldintzetan, eta halakoak pertsona horien beharrianak kontuan hartzea.*




Halaber, Batzordearen 5. Ohar Orokorra, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzkoa, lagungarri da Konbentzioan aitortutako eskubidea interpretatzeko, kontzeptuak argitu eta garatuz, eta Estatu 19. artikulua aplikatzen eta ezartzen zaizkien betebeharrak betetzen lagunduz.

04

ZER DA BIZITZA INDEPENDENTEA





A AURREKARI HISTORIKOAK

Historian, desgaitasuna duten pertsoneri hautuak egin eta beren bizitzako esparru guztietan kontrola pertsonalki eta beren kasa hartzeko aukera ukatu zaie. Horietako askok eurek hautatutako komunitatetan modu independentean bizitzeko gaitasunik ez zutela suposatu da.

Baliabideak erakundeetan inbertitzen dira eta ez desgaitasuna duten pertsonak komunitatean modu independentean bizitzeko dituzten aukeren garapenean. Alboratuak izatea, senitartekoen mendeko izatea eta instituzionalizazioa, isolamendua eta bereiztea ekarri ditu horrek.

B SUSTRAITZEA GIZA ESKUBIDEEN ALORREAN

<p>GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALA</p>	<p>«Pertsona orok komunitatearekiko betebeharrak ere baditu, komunitatea baita bere nortasuna guztiz eta era askean garatzeko toki bakarra» (29.1 artikulua)</p>	
<p>ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOEN NAZIOARTEKO ITUNA</p>	<p>«Estatu baten lurraldean legearen arabera dagoen pertsona orok eskubidea izango du, lurralde horretan askatasunez joan-etortzeko eta lurralde horretan bizilekua askatasunez aukeratzeko» (12.1 artikulua)</p>	
<p>ESKUBIDE EKONOMIKO, SOZIAL ETA KULTURALEN NAZIOARTEKO ITUNA</p>	<p>«Itun honetako estatu alderdiek aitortzen dute pertsona orok duen eskubidea, norberak eta norberaren familiak bizitza-maila egokia izateko, baita elikadura, jantzi eta etxebizitza egokiak ere, eta bizitza-baldintzak etengabe hobetzeko» (11.1 artikulua)</p> <p>«Bizitza-maila egoki baterako eskubideak ez du soilik biltzen elikadura egokia, etxebizitza irisgarria eta oinarrizkoak diren beste premia material batzuk eskuratzeko aukera berdinak izatea, baizik eta baita desgaitasuna duten pertsonen giza eskubideak erabat errespetatzen dituzten laguntza-zerbitzuak eta baliabide eta teknologia laguntzaileak eskuragarri izateko aukera ere» (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordearen 5. Ohar Orokorra)</p>	<p>Zirkulatzeko askatasuna, bizitza-maila egoki bat eta norberaren lehentasun, aukera eta erabakiak ulertu eta ulertarazteko gaitasuna giza duintasunaren eta pertsonaren garapen askerako ezinbesteko baldintzak dira.</p>
<p>GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK</p>	<p>«Pertsona guztien gizarte-, ekonomia- eta politika-inklusioa indartzea eta sustatzea, beren adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera edonolakoa izanda ere» (10.2. helburua)</p> <p>«Pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak eskuratzeko aukera» (11.1. helburua)</p>	

C BIZITZA INDEPENDIENTEAREN DEFINIZIOA


ESKUBIDE HAU

da

desgaitasuna duten pertsonak dutena komunitatean bizitzeko beharrezkoak diren laguntza guztiak jasotzeko, beren bizitzen gaineko erabakiak eta kontrola hartzeko, eta eragiten dieten hautu guztiak egiteko –bereziki, nola, non eta noekin bizi nahi duten–, gaineko baldintza beretan; hau da, ez daitezela behartuta egon bizi-modu jakin baten arabera bizitzera.

HORRENBESTEZ, BIZITZA INDEPENDENTERAKO ESKUBIDEAK

barne hartzen du




Bizilekua eta non eta noekin bizi nahi duten hautatzeko aukera, bizi-modu jakin baten arabera bizitzera behartuta egon gabe.

Eurek hautatutako laguntzak izatea, pertsonalizatuak eta malguak, beren izatea eta komunitateko bizitza erraztekoak.

Irisgarritasun unibertsaleko nahitaezko baldintzak betetzen dituzten instalazio eta komunitateko zerbitzuak eskuragarri izatea.

HORRENBESTEZ,
ESKUBIDE HORREK

*dimentsio
bikoitza
du*



Dimentsio indibiduala (modu independentean bizitzeko eskubidea), norberaren emantzipazioarako eskubide gisa, irisgarritasun eta aukerak ukatu gabe.

Dimentsio soziala (komunitateko kide izateko eskubidea), ingurune inklusiboak sortzeko eskubide gisa.

D BIZITZA INDEPENDIENTEAREN ESKUBIDEARI BURUZKO OKERREKO USTEAK

- Zenbaitetan bizitza independentea identifikatzen da bakarrik bizitza-ekin, baina uste okerra da. Izan ere, desgaitasuna duten pertsonak libreki hauta dezakeen aukeretako bat baino ez da.

X BIZITZA INDEPENDENTEA EZ DA MUGATZEN BAKARRIK BIZITZERA

- Zenbaitetan bizitza independentea identifikatzen da norberak eguneroko jarduerak bere kabuz burutzearekin, baina uste okerra da. Izan ere, funtsezkoena da desgaitasuna duten pertsonak askatasuna edukitzea bere bizitzaren gaineko hautuak eta kontrola egiteko.

X BIZITZA INDEPENDENTEA EZ DA MUGATZEN OINARRIZKO JARDUERAK EGIN AHAL IZATERA

- Zenbaitetan bizitza independentea identifikatzen da eraikin edo leku partikular batean bizitzearekin, egoitza batean bizi ordez, baina uste okerra da. Izan ere, funtsezkoena da norberak bere bizimodua hautatzea, sistema jakin baten mende egon gabe.

X BIZITZA INDEPENDENTEA EZ DA ERAIKIN PARTIKULAR BATEAN BIZITZERA MUGATZEN

- Zenbaitetan bizitza independentea identifikatzen da neurri txikiko egoitzetan edo izaera instituzionaleko etxe funtzionaletan bizitzearekin, baina uste okerra da. Izan ere, bizimodu indibiduala iruditu arren, instituzionalizazioari dagozkion elementuak ditu.


X TAMAINA TXIKIKO EGOITZETAN BIZITZEA EZ DA BIZITZA INDEPENDENTEA IZATEA, INSTITUZIONALIZAZIOA IZATEN JARRAITZEN BAITU

- Zenbaitetan bizitza independentea identifikatzen da asistentzia pertsonaleko zerbitzu bat edukitzearekin, «enplegatzaile» eta zerbitzua-ren kontrolaren eginkizuna erakunde batek bete arren, baina uste okerra da. Izan ere, desgaitasuna duten pertsonak ez du erabakitze-ko ahalmenik asistentziari dagokionez.

X ASISTENTZIA PERTSONALA IZATEA, HAUTATZEKO ETA KONTROLATZEKO AUKERARIK GABE, EZ DA BIZITZA INDEPENDENTEA IZATEA

- Zenbaitetan bizitza independentea identifikatzen da etxean zerbitzuak jasotzearekin –kanpo utzita enpleguan, hezkuntzan edota partaidetza politikoan eta kulturean beharrezkoak diren laguntzak–, baina uste okerra da. Izan ere, laguntzak sortu behar dira errazteko komunitatean bizitzea eta saihesteko isolamendua eta gainerako pertsonetatik aparte egotea.

X BIZITZA INDEPENDENTEA EZ DA MUGATZEN LAGUNTZAK SOILIK ETXEAN JASOTZERA



DESGAITASUNA DUTEN PER-
TSONA

guztiak

dira modu independentean bizi eta komunitateko kide izatearen eskubidearen jabe, edozein dela beren gaitasun intelektuala, autonomia maila edo laguntza-premia.

E ZEIN DIRA ESKUBIDE HORI AITORTUA DUTEN ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK

Bizan ere

desgaitasuna duten pertsona guztiek dute aitortuta gaitasun juridikoa bizitzako alderdi guztietan gainerako pertsonen baldintza berdinetan. Horrek, eskubideen jabe izateko ahalmena ez ezik, eskubidearen arabera jarduteko ahalmena ere bermatzen du.

KOMUNITATEAN MODU INDEPENDENTEAN BIZITZEKO ESKUBIDEA ETA BEREN GAITASUN JURIDIKOA

Baliatzeke

desgaitasuna duten pertsonen beharrezkoa den laguntza eman behar zaie, edozein kasutan beren eskubideak, borondatea eta lehentasunak errespetatuz, eta kontuan izanik laguntza mota eta intentsitatea aldatu egiten dela pertsona batetik bestera pertsona desgaituen aniztasuna dela medio.

F BIZITZA INDEPENDIENTEA VS INSTITUZIONALIZAZIOA

Modu independentean bizitzea eta komunitateko kide izatea egoitzez kanpoko inguruneei dagozkien kontzeptuak dira, edozein izanik ere horien neurria, izena eta antolakuntza.

IZAN ERE ingurune
instituzionalizatueta:

- nahitaez partekatzen dira laguntzaileak beste pertsona batzuekin
- txikia izaten da laguntza onartu behar zaienekiko influentzia, edo batere ez
- isolamendua eta banaketa komunitateko bizitzatik
- eguneroko erabakien gaineko kontrolik eza
- norekin bizi hautatzeko aukera eza
- errutina uzkurra, edozein direla ere pertsonaren borondatea eta lehentasunak
- jarduera berberak leku berean agintaritzak jakin baten mende dagoen pertsona talde batentzat
- zerbitzu-prestazioaren ikuspegi paternalista
- bizi-sistemaren gainbegiratu
- proportziorik eza ingurune berean bizi ziren pertsona desgaitu kopuruan

05

**BIZITZA INDEPEN-
DENTERAKO
ESKUBIDEA
BERMATZEKO
LAGUNTZAK NOLAKOAK
IZAN BEHAR DIREN**



Laguntzak behar dira gauza dadin modu independentean bizitzeko eta komunitateko kide izateko eskubidea. Laguntza horiek hainbat arlotan eman daitezke (esate baterako, etxebizitza, garraioa, erosketak, hezkuntza, enplegua, jolas jarduerak, gizarte-komunikaziorako bitartekoak, etab).

Honatx laguntza horien ezaugarriak:

Eskubidea dira

Indibidualizatuak izan behar dira

Desgaitasuna duten pertsona guztientzat irisgarri, eskuragarri, onargarri eta moldagarriak izan behar dira

Desgaitasuna duten pertsonak hautatu behar ditu bere laguntza-zerbitzuak eta horien hornitzaileak

Norberaren premien eta lehentasun pertsonalen arabekoak izan behar dira

Malguak izan behar dira, desgaitasuna duten pertsonen eskakizunetara egokitzeko, hura zerbitzura egokitu beharrik gabe

Ez dira desgaitasuna duten pertsonen urritasunetan oinarritu behar, baizik eta bere premietan

Ez dira soilik etxean ematen direnak; aitzitik, edozein esparrutara heda daitezke (enplegua, heziketa, partaidetza politiko eta kulturala, aisia, jolas jarduerak, etab.)

Komunitateko bizitza errazteko sortuak izan behar dira eta gainerako pertsonetatik isolatu eta bereiztea saihesteko.

Ez da baimenduko babes zerbitzu instituzionalik, baldin eta segregatu eta autonomia pertsonala mugatzen badu

Ez zaie beste pertsoneri jakinarazi behar, baldin eta baimen aske eta informatuan oinarritutako erabaki baten ondorio ez bada


06

ASISTENTZIA PERTSONALA BIZITZA INDEPENDENTERAKO LAGUNTZA MODURA BEREZIKI AINTZATESTEA

Bizitza independenterako eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren laguntzen artean, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioak eta 5. Ohar Orokorrak asistentzia pertsonalari arreta berezia eskaintzen die.

Asistentzia pertsonaltzat jotzen da bizitza independentea ahalbidetzeko giza laguntza da, desgaitasuna duen pertsona baten eskura ipintzen den tresna bat, interesdun edo «erabiltzaileak» zuzentzen duena.

Askotarikoa modutan agertzen den arren, badira hura beste laguntza pertsonal mota batzuetatik bereizten duten zenbait elementu, hots:



Asistentzia pertsonala irizpide pertsonalizatuetan oinarrituta finantzatu behar da, enplegu duinerako giza eskubideen arauak kontuan izan behar ditu, eta desgaitasuna duen pertsonari esleitu behar zaio.

Zerbitzua desgaitasuna duen pertsonak kontrolatu behar du. Horrek esanahi du aukera izango duela zerbitzua hainbat hornitzaileen artean kontratatzeko edo enplegatzaile modura jarduteko; zerbitzua nork, nola, noiz, non eta zein eratan ematen duen planifikatzeko; zerbitzua ematen duten pertsonari argibideak emateko eta haiek zuzentzeko.


Harreman pertsonala da. Asistente pertsonalak laguntza hori jasotzen duten pertsonak kontratu, gaitu eta gainbegiratu behar dituzte, eta horiek baimen erabatekoa eta askea eman gabe ezin dira «partekatu».

Autogestioa, alegia: pertsona desgaituak hautatu behar du libreki zerbitzuaren gainean izan behar duen kontrol pertsonala, bere bizitzako inguruabarren eta lehentasunen arabera.

Desgaitasuna duen pertsonak hala eskatzen baldin badu (esate baterako, komunikazio-premiak direla medio), bere agindu, erabaki, hautu eta lehentasunak adierazi eta helarazteko zerbitzu egokiak jaso behar ditu, horiek aitortu eta errespetatu daitezzen.

07

ESTATUEK 19. ARTIKULUA ERAGINKOR IZAN DADIN **DITUZTEN BETEBEHARRAK**



Konbentzioa sinatu eta berretsi duten estatu-kideek hurrengo betebeharrak bete behar dituzte, bermatzeko modu independentean bizitzeko eta komunitateko kide izateko eskubidea:

01 | Neurriak sustatzea, ahalbidetzea eta eskaintzea eraginkortasun osoz bermatzeko modu independentean bizitzeko eta komunitateko kide izateko eskubidea (legegintzakoak, administrazioak, aurrekontuetakoak, justiziakoak, programetakoak, promozioetakoak edo bestelakoak); eta baztertzea eskubide hori eraginkortasun osoz baliatzea galarazten duten hesi praktikoak.

02 | Ingurune instituzionalizatua ordeztzeko bizimodu independentea errazteko zerbitzuekin, berriazko estrategia eta ekintza-plan bana sortzea, instituzioekiko mendekotasunetik askatzeko, epe egokiekin eta behar beste baliabidez hornituta, pertsona desgaituen elkarrekin errespetuzko kontsultak eginda. Horretarako, ezinbestekoa da:

- Instituzioak ixtea
- Instituzio berriak ez eraikitzea
- Instituzio zaharrak ez berritzea, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren premiazko neurrietatik harago
- Instituzioak ez handitzea
- Erabiltzaile batzuek instituzioa uzten dutenean erabiltzaile berririk ez hartzea
- Instituzioen adarkadura bat diren «satelite» erako egoitzak ez ezartzea, hau da, egoitza indibidualaren itxura izan arren (apartamentu edo etxebizitza indibidualak), instituzioen inguruan ardatzen direnak
- Instituzionalizazio-arauak baztertzea
- Laguntza pertsonalizatuak ezartzea
- Trantsizio-planak eratzea

03 | Desgaitasuna duten pertsonen edo pertsona-multzoen aurkako diskriminazioa desagerraraztea, eta modu independentean bizi eta komunitatean parte hartzeko beren eskubidea bermatzea, baldintza berdinetan.

04 | Modu independentean bizi eta komunitateko kide izatearen eskubidea indibidualki erabiltzean zuzeneko edo zeharkako injerentzia orori muzin egitea, eta eskubide hori inola ere ez mugatzea.

05 | Laguntza-zerbitzuak, nahiz instalazio eta zerbitzu orokorrak eskuratzeko oztupoak mantendu eta sortzen dituzten lege, politika eta egiturak bertan behera uztea, eta horiek onartzeari muzin egitea.

- 06** | Erabakiak hartzerakoan aldaketa-erregimenak erabakiak hartzeko laguntza-alternatibekin ordeztzea.
- 07** | Senitartekoek edo hirugarren aldeek komunitatean modu independentean bizitzeko eskubidea zuzenean edo zeharka eragotz dezatela ekiditeko neurriak hartzea.
- 08** | Laguntza beti premia indibidualetan oinarritu dadila bermatzea, ez zerbitzuen hornitzaileen interesetan, eta pertsonalizazioan nahiz pertsona desgaituak komunitateko kide izatea oztopatzen duten egiazko hesietan oinarritutako ikuspegi batekin.
- 09** | Senitartekoen eginkizuna indartzea desgaitasuna duen senidea lagundu dezaten modu independentean bizi eta komunitateko kide izatearen eskubidea eraginkorra izan dadin.
- 10** | Kontsulta estuak egitea eta desgaitasuna duten pertsona ezberdinekin modu aktiboan kolaboratzea komunitatean modu independentean bizitzeari dagozkion alderdi guztietan horiek ordezkatzan dituzten erakundeen bidez, bereziki, laguntza-zerbitzuak sortzearekin eta komunitatearen barnean zerbitzu horietan baliabideak inbertitzearekin lotuta.
- 11** | Komunitatean bizitza independentea izateko lagungarri diren programa eta prestazioek desgaitasunarekin zerikusia duten gastuak estal ditzatela bermatzea.
- 12** | Irisgarri eta eskuragarri diren behar adina etxebizitza izatea bermatzea.
- 13** | Desgaitasunarekin lotutako laguntzak eskuragarri egon daitezela eta desgaitasuna duten pertsona guztientzat irisgarri, eskuragarri, onargarri eta moldagarriak izan daitezela bermatzea, bizi-baldintza eta inguruabar indibidual ezberdinak kontuan izanik.
- 14** | Eskudiruzko transferentziak bultzatzea desgaitasuna duten pertsonen laguntza emateko, desgaitasunarekin lotutako gastuak aitortuz, eta desgaitasuna duten pertsonak komunitatean erabateko parte-hartzea izan dezala ahalbidetzea, desgaitasuna duten pertsona batzuek izan dezaketen txirotasun eta muturreko txirotasun egoerei ere aurre eginez.

- 15** | Bizitza independente baterako aukeretan eta komunitate barneko laguntza-zerbitzuetan oinarritutako erabakiak hartzeko funtsezkoa den informazioa, eguneratua eta zehatza, ematea eta hedatzea, modu egokian eta formatu irisgarritan.
- 16** | Desgaitasunarekin lotutako zerbitzuetan lan egiten duten edo lan egingo duten pertsonen komunitatean bizitza independentea izateari buruzko prestakuntza egokia jaso dezatela ziurtatzea, teorikoki nahiz praktikoki.
- 17** | Komunitatean modu independentean bizitzeko eskubidea erabili nahi duten eta desgaitasuna duten pertsonen bermatzea justiziarako sarbidea eta ematea laguntza letratua eta aholkularitza, baliabide eta laguntza juridiko egokiak.
- 18** | Familiako zaintzaileei laguntza-zerbitzu egokiak ematea, finantza arloko laguntza barne, aldi berean beren seme-alaba edo senitartekoari komunitatean modu independentean bizitzeko laguntza emateko aukera izan dezaten.
- 19** | Aldizka inkestak edo bestelako analisiak egitea desgaitasuna duten pertsonen fisikoki, komunikazioan, giroari dagokionez, azpiegitura arloan eta jarrera aldetik aurkitzen dituzten oztopoei buruz eta komunitatean modu independentean bizitzeko premiei buruz.

08

ZEHARKAKOTASUNA BESTE ESKUBIDE BATZUEKIN



Modu independentean bizi eta komunitateko kide izatearen eskubidea Konbentzioan aitortzen diren beste giza eskubide batzuekin dago lotuta. Baina eskubide horien batura baino gehiago da, izan ere, eskubide guztiak pertsona batek bizitzeko eta bere izaera modu askean eta erabat garatzeko hautatzen duen komunitatean erabili eta gauzatu behar dira.

- Kontsultak desgaitasuna duten pertsonekin eta horien parte-hartze aktiboa horiek ordezkatzeko dituzten erakundeen bidez (4. artikuluko 3. lerroaldea).
- Diskriminaziorik eza laguntza-zerbitzuetarako irisgarritasunean eta horien harreran (5. artikulua).
- Bazterkeria eta bereizkeria handiegia pairatzen ez duten emakume eta neskato desgaituak (6. artikulua).
- Komunitate ireki, egoki eta inklusiboak sortzeko kontzientziazioa (8. artikulua).
- Eraikitako ingurunearen, garraioen, informazio eta komunikazioaren, eta komunitatean publikora irekitako instalazio eta zerbitzuen eskuragarritasuna (9. artikulua).
- Pertsonak legearen aurrean aitortzen bera izatea desgaitasuna duten pertsona guztiek beren ahalmen juridiko osoa egikaritzeko eta, horrenbestez, beren bizitza gainerakoen baldintza berdinetan hautatu eta kontrolatzeko eskubidea izan dezaten (12. artikulua).
- Justiziara jotzea desgaitasuna duten pertsona guztiek auzitegietan ahalmen juridikoa eta jardutekoa izan dezaten, horretarako beharrezkoak diren laguntzak eta doikuntzak emanez (13. artikulua).
- Askatasuna eta segurtasuna ekiditeko zentroetan sartzea borondatearen kontra –komunitatean laguntza-zerbitzuak ez izatearen ondorio izaten da– (14. artikulua).

- Babesa esplotazioaren, indarkeriaren eta abusuaren aurrean laguntza-zerbitzu egokien bidez (16. artikulua).
- Mugikortasun pertsonala pertsona edo animaliek emandako laguntzen, teknologia lagungarrien, gailu teknikoaren eta mugikortasunerako laguntzen bidez (20. artikulua).
- Informazio publiko oro formatu eskuragarritan kontsultatzea eta, informazioa eta ideiak gainerakoaren baldintza berdinetan bildu, jaso eta transmititzea (21. artikulua).
- Pribatutasuna, familia, etxea, korrespondentzia eta ohorea babestea legez kanpoko edozein injerentziaren aurrean (22. artikulua).
- Familiarako eskubidea desgaitasuna duten haurren eta gurasoen kasuan (23. artikulua).
- Hezkuntza inklusiboa pertsona desgaituek komunitatean parte har dezaten beharrezkoak diren ezaugarri, trebetasun eta kompetentzien garapenean betetzen duen funtzioa dela medio (24. artikulua).
- Desgaitasuna duten pertsonentzat osasun instalazio eta zerbitzu orokorrak eskuragarri, irisgarri, moldagarri eta onargarri egotea (25. artikulua).
- Komunitatean erabat eta eraginkortasunez parte hartzeko gaikuntza eta birgaikuntza (26. artikulua).
- Lana eta enplegua, enplegu babestua pixkanaka alboratuz (27. artikulua).
- Bizitza-maila egokia izatea zerbitzu, gailu eta bestelako laguntza modu irisgarriak eskuragarri izanez, desgaitasuna duten pertsonen desgaitasunarekin lotutako gastuak beren kasa ordain ditzatela ukatuz (28. artikulua).
- Bizitza politiko eta publikoan parte hartzea komunitatearen garapenean eragina duten erabakietan eragin eta parte hartzeko, bakarka edo beren erakundearen bidez (29. artikulua).
- Bizitza kulturean, jolas jardueretan, aisian eta kirolean parte hartzea, ekitaldi, jarduera eta instalazioak inklusiboak eta desgaitasuna duten pertsonentzat irisgarriak izatea ziurtatuz (30. artikulua).

- Desgaitasunaren arabera modu sistematikoa banakatutako datuak eta informazioa sektore guztietan (etxebizitza, bizi-sistema, gizarte-babeseke planak, bizitza independenterako sarrera, laguntzak, zerbitzuak, etab.), instituzioen mendekotasunetik askatu eta komunitatean dauden laguntza-zerbitzuetara jotzeari dagokionez egindako aurrerapenei buruz aldizka analisiak eginez (31. artikulua).
- Nazioarteko kooperazioa, atzerriko laguntza desgaitasuna duten pertsonen borondatea eta lehentasunak errespetatzen dituzten eta pertsona horiek non eta norekin bizi nahi duten hautatzeko duten eskubidea bultzatzen duten komunitateetako laguntza-zerbitzuetan inbertitu dadin, eskuratutako funtsak instituzio edo barneratze-zentro berrien sorreran edo bizitegi erako arreta-ereduetan inbertitzeko erabil daitezela saihestuz (32. artikulua).



Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa

